




# 2025

## iruditan en imágenes

### TU Lankide

Donald Trump AEBko 45. presidentea izan zen 2017 eta 2021 artean, eta 47. presidentea bihurtu zen 2025eko urtarilaren 20tik aurrera. Izendapen horrek munduko jardun politiko, ekonomiko eta soziala markatu zuen. Trumpen iritsierak, Ukrainako gerrak eta Gazako inbasioak eragindako lurrikarak markatu dute agenda globala, baita MONDRAGONeko kooperatiben agenda ere.

Kooperatiben esparruan, MONDRAGON Korporazioak 2025-2028 aldirako politika sozio-enpresariala jarri zuen abian, “lidergo-posizioak lortzeko erronkarekin, aldaketekin lehiakorragoak, kooperatiboagoak eta arinagoak izanik, gizartea eraldatzeko funtsezko eragile izateko”. Kooperatibek eta Korporazioak berak ere aurrera egiten dute lau ardatz estrategikoetan sakonduz: konpromisoa eta nortasun kooperatiboa, etorkizuna daukaten negozioak, irekiera eta inpaktu soziala, eta interkooperazioa.

Donald Trump ejerció como el 45º presidente de los Estados Unidos entre 2017 y 2021, y se convirtió en el 47º presidente a partir del 20 de enero de 2025. Un nombramiento que marcó el ejercicio político, económico y social mundial. El seísmo provocado por la llegada al poder de Trump, la guerra de Ucrania y la invasión de Gaza han marcado la agenda global, y en cierto modo también la de las cooperativas de MONDRAGON.

En el ámbito cooperativo, Corporación MONDRAGON aprobó su Política Socio-empresarial 2025-2028, con el reto de “alcanzar posiciones de liderazgo, siendo más competitivos, más cooperativos y ágiles con los cambios, para ser un agente clave de transformación social”. Las cooperativas y la propia Corporación avanzan en sus cuatro ejes estratégicos: compromiso e identidad cooperativa, negocios de futuro, apertura e impacto social, e intercooperación.

# URTEKARIA ANUARIO

25 FOTOS DEL 2025  
ARGAZKI



1

## Orbik Cybersecurity, kooperatiba mistoa bihurtu den lehen start-up teknologikoa



MONDRAGONek eta Ikerlanek sinatutako hitzarmen baten testuinguruan egin zuen, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza izango du, SPRI taldearen Basque Tek Ventures programaren bidez.

## Orbik Cybersecurity, primera start-up tecnológica que se transforma en cooperativa mixta



Lo hizo en el marco de un acuerdo entre MONDRAGON e Ikerlan, y con el apoyo del Gobierno Vasco a través del programa Basque Tek Ventures del grupo SPRI.

## B-WOMENIN Globalek Otoran itxi zuen bere lehen edizioa



Ekimen honen helburua da nazioartekotzean emakumeen lidergoa bultzatzea.

## B-WOMENIN Global cerró en Otoran su primera edición



Esta iniciativa busca impulsar el liderazgo femenino en la internacionalización.

2





3

### Espainiako Kongresuak LagunAroren berezitasuna aitortzen duen Errege Lege Dekretua baliozkotu zuen



Dekretuak LagunArori izaera berezitua ematen dio 2023tik indarrean dagoen autonomoen kotizazio-sisteman.

### El Congreso convalidó el Real Decreto-Ley que reconoce la singularidad de LagunAro



Esta aprobación otorga un tratamiento diferencial a LagunAro en el sistema de cotización de autónomos vigente desde 2023.



4

### El Regato eta San Fidel ikastetxeetako taldeak, FLL Euskadi-MONDRAGON torneoko irabazle



Martxoaren 29an Ferrolera (Galizia) joan ziren bi talde hauek Estatuko kanporaketa jokatzera.

### Los equipos de El Regato Ikastetxea y San Fidel Ikastola, ganadores del torneo FLL Euskadi-MONDRAGON



El 29 de marzo se desplazaron a Ferrol (Galicia) para disputar la eliminatoria estatal.



5

## Emakume kooperatibisten lidergoaren aitortza, M8an

Kooperatiben Kontseiluak eta Konfekoopek MONDRAGONeko kooperatibetako 34 emakume zuzendari eta presidenteri aitortza egin zieten, erantzukizun-postuetan egindako ibilbideagatik.



## Reconocimiento al liderazgo de las mujeres cooperativistas en el 8M



Un total de 34 mujeres, presidentas o directoras de cooperativas de MONDRAGON fueron reconocidas por Kooperatiben Kontseilua y Konfekoop por su trayectoria en puestos de responsabilidad.

## LagunArok 2024 ona itxi du eta sendotasunez begiratzen die etorkizuneko erronkei



Gai zerrendako puntu guztiak aho batez onartu ziren. Haien artean, 2024ko Kontuak, 2025eko Gestio Plana eta baita 2023an aplikatu gabe gelditu zen %4,7ko KPIaren zatia berreskuratzea ere.

## LagunAro concluye con nota 2024 y afronta con solidez sus retos de futuro



Todos los puntos del orden del día se aprobaron por unanimidad. Entre ellos, las cuentas de 2024, el Plan de Gestión para 2025 y la recuperación del 4,7% de la parte del IPC que no se aplicó en 2023 a las pensiones.

6



## MONDRAGONeko Pertsonen Foroa egin zen Kursaal



200 lagun bildu ziren "gizarte heterogeneoa eta aldakorra surfeatzaren duten erakunde eta pertsonen" buruzko esperientziak eztabaidatu eta partekatzeko.

## Nueva edición del Foro de Personas de MONDRAGON



200 personas se reunieron en el Kursaal para debatir y compartir experiencias sobre "organizaciones y personas surfeando una sociedad heterogénea y cambiante".

7





8

## Gerodan kooperatiba, 20 urteko ibilbide arrakastatsua



Hogeigarren urteurrena ospatzeko ekitaldi xume baina aldi berean hunkigarria egin zuen Gerodan kooperatibak, enpresaren instalazioetan, Azpeitian (Gipuzkoa).

## 20 años de cooperativismo y mucho corazón



Gerodan celebró su vigésimo aniversario en un sencillo pero emotivo acto en las instalaciones de la propia empresa, en Azpeitia (Gipuzkoa).

## Fagor Ederbatt, errendimendu handiko litiozko bateriak ekoizteko ekimen berria



Mugikortasun elektriko hainbat sektoretarako prestazio handiko bateriak garatzeko, ekoizteko eta merkaturatzeko lankidetzan garatutako enpresa-proiektu berria da Fagor Ederbatt.

## Fagor Ederbatt, nueva iniciativa de producción de baterías de litio de alto rendimiento



Se trata de un nuevo proyecto empresarial desarrollado en intercooperación dedicado al desarrollo, producción y comercialización de baterías de altas prestaciones para diferentes sectores de movilidad eléctrica.

9





10

## Yolanda Díaz Lan eta Gizarte Ekonomia ministroa Coprecin



Espainiako Gobernuaren presidenteordeak babesa adierazi zien muga-zergen aferagatik kaltetuak izan litezkeen enpresei. Aretxabaletako lantokian instalazioak eta jarduerak ezagutu zituen, eta kooperatibako arduradunekin batzartu zen ostean.

## Yolanda Díaz, ministra de Trabajo y Economía Social, visita Copreci



La vicepresidenta del Gobierno de España mostró su apoyo a las empresas que puedan verse afectadas por los aranceles estadounidenses. En su visita, se interesó por las actividades que desarrolla la cooperativa y se reunió con sus responsables.



11

## Komunikazioa, marka, estrategia eta kontakizuna, 2025eko K-FOROaren osagai nagusiak



Maiatzaren 8an K-Foroaren 7. edizioa ospatu zen Irudienea izeneko espazio berrian, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Aretxabaletan (Gipuzkoa). 100 pertsona inguru bildu ziren gure kooperatibetako komunikazioari, egungo egoerari, joerei eta etorkizuneko erronkei buruz hausnartzeko.

## Comunicación, marca, estrategia y relato, principales ingredientes de K-FOROA 2025



El 8 de mayo se celebró la 7ª edición de K-Foroa, en el nuevo espacio denominado Irudienea, en la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación de Mondragon Unibertsitatea, en Aretxabaleta (Gipuzkoa). Alrededor de 100 personas se reunieron para reflexionar sobre Comunicación en nuestras cooperativas, la situación actual, las tendencias y los retos de futuro.



12

## AMETS Power Electronics, MONDRAGONek eta Artechek potentzia-elektronika sustatzeko ekimen berria



Sare elektrikoaren, energia berriztagarrien eta industria astunen aplikazioetara bideratutako potentzia-elektronikako soluzioen garapenean eta merkaturatzean oinarritutako enpresa berria. Lehen etapan, Artecheren eta Ikerlanen arteko garapen teknologiko bateratua egingo da. Ikerlan zentro teknologikoa erreferentzia da potentzia-elektronikan.

## MONDRAGON y Artech crean AMETS Power Electronics para impulsar la electrónica de potencia



La nueva sociedad se centrará en el desarrollo y comercialización de soluciones de electrónica de potencia orientadas a aplicaciones de redes eléctricas, energías renovables e industrias pesadas. En su primera etapa, se centrará en el desarrollo tecnológico conjunto entre Artech e Ikerlan, centro tecnológico referente en electrónica de potencia.

## MONDRAGONek 11.213 milioiko salmentak lortu zituen 2024an

2024an egindako inbertsioak 376 milioira iritsi ziren, eta inpaktu sozialeko ekintzetara bideratutako baliabideek marka berria ezarri zuten: 50 milioi euro baino gehiago mila erakunde ingururi bideratuta.

## MONDRAGON alcanzó unas ventas de 11.213 millones en 2024

Las inversiones realizadas en 2024 llegaron a 376 millones y los recursos destinados a acciones de impacto social establecieron una nueva marca: más de 50 millones de euros destinados a un millar de entidades.

13



## Kooperatibetan berrikuntza indartuko du MONDRAGONek Zorrotzaurreko proiektuarekin

Bilboko hub teknologiko berriak ezagutza, teknologia, talentua eta enpresa uztartuko ditu, lankidetzeta publiko-pribatuaren eskutik ehun kooperatiboak eraldaketa digitalarekiko duen konpromisoa sendotuz.

## MONDRAGON refuerza su apuesta por la innovación en las cooperativas con un proyecto estratégico en Zorrotzaurre

El nuevo hub tecnológico en Bilbao integrará conocimiento, tecnología, talento y empresa, consolidando la colaboración público-privada y el compromiso con la transformación digital del tejido cooperativo.

14





15

### 200 lan aukera inguru, MONDRAGON People webgune berrituan



Ekosistema kooperatiboaren barruan talentua aukerekin konektatzeko erreferentziako plataforma gisa finkatu da MONDRAGON People, Korporazioaren enplegu ataria.

### Más de 200 oportunidades laborales activas en la renovada web de MONDRAGON People



El portal de empleo de la Corporación, MONDRAGON People, se consolida como una plataforma de referencia para conectar talento con oportunidades dentro del ecosistema cooperativo.

### MONDRAGONek NÉBODAn inbertitu du



CDTI Innovación eta UNIRISCO GALICIArekin batera, Korporazioak, MONDRAGON Venturesen bitartez, barne-nekazaritza bertikalean espezializatutako startupean inbertitu du.

### MONDRAGON invierte en NÉBODA



Junto con CDTI Innovación y UNIRISCO GALICIA, la Corporación, a través de MONDRAGON Ventures, apuesta por esta startup especializada en agricultura vertical de interior.

16





17

## Diputatuen Kongresuaren presidentea, MONDRAGONen

Francina Armengol Otoloran hartu zuen Leire Mugerzak. Asfabriken (Mondragon Unibertsitatea) hasi zuen bisita instituzionala, eta arratsaldean Fagor Arrasate zein Ikerlan bisitatu zituen.

## La presidenta del Congreso visita MONDRAGON

Francina Armengol fue recibida por Leire Mugerza en Otalora, en el contexto de la visita institucional que inició en Asfabrik (Mondragon Unibertsitatea) y concluyó con visitas a Fagor Arrasate e Ikerlan.



18

## Kataluniako Generalitatearen presidentea, MONDRAGONen

Pello Rodriguez, MONDRAGON Korporazioaren presidenteak eta Mikel Torres Eusko Jaurlaritzaren lehendakariordeak harrera egin zioten. Ondoren, Mondragon Assembly-k Aretxabaletan (Gipuzkoa) duen lantegia bisitatu zuten.

## El president de la Generalitat catalana, en MONDRAGON

Visita institucional de Salvador Illa a MONDRAGON, donde fue recibido por Pello Rodriguez y el vicelehendakari Mikel Torres. Posteriormente visitaron la planta de Mondragon Assembly en Aretxabaleta (Gipuzkoa).

# 19

## **Dikar-ek Ternua erosi du, kooperatibaren hazkundea bultzatzeko eta marka Euskal Herrian errotzen dela bermatzeko**



Operazioa kooperatibaren dibertsifikazio-estrategian eta outdoor sektorean duen posizionamendua indartzeko estrategian oinarritua dago. Erosketa honek sendotu egiten du Dikarrek eta MONDRAGONek Euskal Herrian industria jarduerari eta enpleguari eusteko duten konpromisoa.

## **Dikar adquiere Ternua para impulsar su crecimiento y garantizar el arraigo de la marca en Euskadi**



La operación se enmarca en la estrategia de diversificación de la cooperativa y de refuerzo de su posicionamiento en el sector outdoor. La adquisición consolida el compromiso de Dikar y MONDRAGON con el mantenimiento de la actividad industrial y el empleo en Euskadi.



## M&A operazioak, MONDRAGONen Finantza Foroaren IX. edizioaren ardatz



Kooperatibetako Finantza arduradun ugari elkartu ziren bertan, ehundik gora ordezkari. Fokoa, berriz, arlo batean jarri zuten bereziki: M&A operazioen (fusioak eta erosketak) bidezko hazkunde inorganikoa.

## Las operaciones M&A, tema central del IX Foro Finanzas de MONDRAGON



Un encuentro muy concurrido al que asistieron más de un centenar de responsables financieros de las cooperativas, con el foco en el crecimiento inorgánico mediante las operaciones M&A (fusiones y adquisiciones).

20



## Guido Agostinelli dibulгатzaile argentinarraren MONDRAGONi buruzko bideoak milioitik gorako ikustaldiak



Hiru egunetan soilik, Agostinellik 47.000 “atsegin dut” lortu zituen Instagramen eta 12.000 TikToken, eta milaka iruzkin sortu zituen bi plataformetan, gehienak printzipio kooperatiboak goraipatzen dituztenak.

## El divulgador argentino Guido Agostinelli visita MONDRAGON y arrasa en redes con más de un millón de reproducciones



En solo tres días, Agostinelli sumó 47.000 “me gusta” en Instagram y 12.000 en TikTok, y generó miles de comentarios en ambas plataformas, que en su inmensa mayoría se alineaban con los principios cooperativos.

21





22

### Danobatgroupek Enpresa Berrikuntzaren Saria jaso zuen lidergo teknologikoan egindako 70 urteengatik



Sari horrekin berrikuntzaren alde eta Danobat, Soraluce eta Goimek bere enpresa nagusiek bezeroentzat soluzio teknologiko aurreratuak garatzearen alde egiten duen apustu sendoaren balioa nabarmendu zen.

### Danobatgroup, reconocida por su ADN innovador



El grupo cooperativo de máquina-herramienta recibió el Premio a la Innovación Empresarial en la Noche de la Empresa Vasca por su apuesta estratégica por la I+D y su salto a la robótica de precisión.



23

## MONDRAGON Foroaren XIII. edizioak 400 lagun baino gehiago elkartu zituen Bilbon

MONDRAGON Foroaren XIII. edizioak kooperatibetako errektore-kontseiluetako eta zuzendaritza-taldeetako 400 ordezkari baino gehiago bildu zituen Bilboko Euskalduna Jauregian, Korporazioaren hurrengo laurtekorako ibilbide-orriaren ardatz estrategikoei buruz hausnartzeko.



## La XIII Edición del Foro MONDRAGON reunió a más de 400 personas en Bilbao

La XIII edición del Foro MONDRAGON congregó a más de 400 representantes de los consejos rectores y equipos directivos de las cooperativas en el Palacio Euskalduna de Bilbao, con el objetivo de reflexionar sobre los ejes estratégicos de la hoja de ruta de la Corporación para el próximo cuatrienio.





24

## TFG-TFM MONDRAGON Sariek talentua aitortu zuten



2025eko edizioak inoizko parte-hartze handiena izan zuen, 340 hautagaitza jaso ziren, %59 Euskal Herriko unibertsitateetatik, %38 Estatu mailako unibertsitateetatik, eta %3 Europako unibertsitateetatik. 26.250 € banatu ziren saritan, eta azken faseari amaiera emateko 'InpaktuDay' jardunaldia ospatu zen Bilbon, 57 finalisten eta kooperatiba babesleen artean zubiak eraikitzeko.

## Los Premios TFG-TFM MONDRAGON reconocen el talento



Se recibieron 340 candidaturas, de las cuales el 59% procedían de universidades de Euskal Herria, el 38% de universidades del resto del Estado, y el 3% de universidades europeas. Se repartieron 26.250 € en premios, y la fase final concluyó con la jornada 'InpaktuDay' celebrada en Bilbao, con el objetivo de tender puentes entre los 57 finalistas y las cooperativas patrocinadoras.

## Fagor Ederlan Taldeak eta Duoli Technologyk Lieder Automotive sortzeko lankidetza indartu



Fagor Ederlan Taldeak, automobilgintzako osagaien sektorean nazioarteko erreferente denak, eta Duoli Technology-k, sektorean bi hamarkada baino gehiagoko esperientzia duen Txinako industria taldeak, beste urrats bat eman zuten Lieder Automotive SL sortzeko daukaten aliantza estrategikoan.

## Fagor Ederlan Group y Duoli Technology refuerzan su colaboración con la creación de Lieder Automotive



El Grupo Fagor Ederlan, referente internacional en el sector de componentes de automoción, y Duoli Technology, grupo industrial chino con más de dos décadas de experiencia en el sector, dieron un paso más en su alianza estratégica para crear Lieder Automotive S.L.

25



# 12

AHOTS



“

**Gorka Artola**  
Innkiako zuzendaria

**“Enpresa batek ez badu adimen artifiziala erabiltzen, ondokoek egingo dute, eta lehiakorragoak izango dira”**



“

**Nerea Aranguren**  
Vicepresidenta de MONDRAGON y directora general de las divisiones Danobatgroup y MONDRAGON Automatización Industrial (MIA)

**“Tenemos que aprovechar al máximo la palanca de la intercooperación”**



“

**Carlos Maza**  
LagunAroko zuzendari orokorra

**“Gure ereduak miresmena pizten du sektoreko adituen artean”**



“

**Digna González**  
Directora general de Bexen Cardio

**“Juntos, salvamos más vidas”**





**Xabi Igoa**

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien  
Fakultateko Komunikazio arduraduna

**“IdeiEnea laborategiak beste ingurune edo ekosistema batean jarriko gaitu”**



**Judit Ruiz de Munain**

MLAKOOPeko Osasun Eskola+  
proiektuko zuzendaria

**“Protagonista izan behar dugu gure osasunaren zaintzan”**



**Oskar Goitia**

Presidente de MONDRAGON  
Internacional

**“Es momento de alianzas y cooperación”**



**Asun Bastida**

Eroskiko Tokiko Produktuen  
arduraduna

**“Tokiko produktuak salmentetan duen partea %50 baino gehiago hazi da”**





**Mirari Zilaurren**

Lana kooperatibako presidente ohia

**“Kooperatibako presidente izatea sekulako ikasgaia izan da”**



**Rafa Pol**

Economista y profesional en la gestión de proyectos

**“Deberíamos reforzar y difundir nuestros valores, que son los que merecen perdurar tras esta tormenta que puede desarbolar nuestra nave”**



**Ainara Udaondo**

LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiaren zuzendaria

**“Kooperatibismoa indartu beharra zegoela ikusi genuen duela 25 urte, eta norabide horretan egin dugu bidea”**



**Lander Beloki**

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko dekanoa

**“Sentsazioa orokorra da dena lotuta dagoela: klimak, ekonomiak, geopolitikak, teknologiak eta enpleguak puzzle bera osatzen dute. Hori konpontzea ez da erraza izango, baina argi dago ez dagoela konponbiderik lankidetzarik gabe eta epe luzerako begiradarik gabe”**





## TU LANKIDE 2025: kooperatiben aktualitatea

TU Lankidek gaurkotasun kooperatiboa hainbat euskarritan jarraitu du: hiru hilean behingo paperezko aldizkaria, webgunea ([www.tulankide.com](http://www.tulankide.com)), sare sozialak eta buletinak.

## TU LANKIDE 2025: la actualidad cooperativa

TU Lankide ha seguido la actualidad cooperativa desde diversos soportes: revista en papel de carácter trimestral, web ([www.tulankide.com](http://www.tulankide.com)), redes sociales y boletines.



**632**  
Lehenengo hiruhilekoa / 1er trimestre.



**633**  
Bigarren hiruhilekoa / 2do trimestre.



**634**  
Hirugarren hiruhilekoa / 3er trimestre.



**635**  
Lauugarren hiruhilekoa / 4º trimestre.



tulankide.com

208.000


bitari 2025ean  
visitas en 2025

+4.400

harpidedun buletinean  
suscripciones al boletín

+8.300

jarraitzaile sare sozialetan  
seguidores en redes sociales



**TU**Lankide

**2025** iruditan  
en imágenes

